

2014 / 2015 denboraldia poliki-poliki bidea eraikitzen

oarsoMusika

Gure bigarren denboraldia itxi berri dugu. Gure indarrak ia agortu zaizkigu baina oso gustora geratu gara gure 20 jaialdiekin. Gure helburua ez da makala, Orereta aspaldian izandako erreferente musikala berriz izatea nahiko genuke eta. Madalenetan eta tabernetan egiten diren kontzertu apurrez gain Oreretako musikazaleek merezi dugun eskaintza sortu nahi dugu. Aurten izen handiagoko taldeak ekartzen egin dugu esfortzua (eta udalak egindakoa ere eskertu nahi dugu), gure ekina zabaltzeko asmoz eta Euskal Herri osoan jakin dezaten guri buruz.

Denboraldi honetan zehar Galiza, Burgos, Bizkaia, Iparralde, Nafarroa edota Gipuzkoa osotik gerturatu zaigu publikoa. Sorpresa handia hartu genuen adibidez *The Paul Collins Beat* taldearen kontzertuarekin, joan den maiatzaren 5ean. Asteartea zela eta beldur ginen ordaindu beharrekoa handia baitzen eta Champions-eko partida baitzegoen (bai ba, oraindik ere futbolak publiko asko kentzen digu). Ba zorionez 220 pertsona agertu zitzaizkigun eta ia gainezka egin zigun aurreikuspenak.

Txirolori egindako omenaldia ere gogoz oroitzen dugu, gure lehengo sold out-a, eta bakarra. Izugarria izan zen jendea ero moduan ikustea, Orereta esatea punk esatearen pare zeneko 80. hamarkadara egin genuen salto bapatean. Penintsulan ezagun diren baina hemen oraindik izenik ez duten talde ainitz ekarri ditugu, eta baita haien zuzeneko ederrekin gozatu ere: *Dinero*, *Kitai*, *Cobra*, *Fuzz*...

Urte bukaeran eta lan handiaren ondoren *Zea Mays* ekartzea lortu genuen eta Olentzero opari izugarria egin genien bertan bildu ziren 400 pertsoneri. Ez ditugu bestalde inoiz bertako taldeak ahazten, haien etxea izango da beti oarsoMusika eta ahal dugun guztietan sartzen ditugu programazioan, aukerak eta babesa emateko asmoz.

Baina guretzat kontzertu bereziena maiatzaren 30ekoa izan zen. Apostu ekonomiko han-

dia egin genuen herriari maila handiko kontzertua eskaini nahi baikenion sarrera prezio txikian, 5 euro besterik ez. Denboraldi amaiera ospatzeko jaialdia izan zen honakoa eta ikaragarria izan zen bizi genuen guztientzat, ahaztezina hiru taldeek emandakoa, hip hop, ska eta funky. Zalantzarik gabe hau izan da publiko artean irribarre gehien banatu dugun eguna, horiek dantzatzeko gogo eta moduak! Txutxumutxu bat konpartitu nahi dugu zuekin, *O'funk'illo*-ko kantaria gaupasaz zetorren aurreko egunean Tarifan beste kontzertu bat izan zuelako eta soinu probarako indarrak gabe heldu zitzaigun. *Luz de putas* taldearekin jendea dantzan ikusi zuenean ordea, gogotsu animatu zen eta 10 urte erantzita atera zen eskenatoki gainera.

Hauxe izan da bukatu berri den denboraldi honetako errepasso azkar bat. Hurrengoan zuek harritzen saiatzen jarraituko dugu, eta zuekin batera musikaz gozaten jarraituko dugula espero dugu.

Agenda

| | |
|----------------|--|
| urriak 18 | Idolos del extrarradio, Tinnitus |
| urriak 24 | Lionhead, Meltdown |
| azaroak 20 | Burn in hell (australia) |
| azaroak 22 | Cobra, Innputt |
| abenduak 07 | Amorante, Mursego |
| abenduak 13 | Dinero, Kitai, Kasomai |
| abenduak 26 | Zea mays |
| urtarrillak 09 | Prag (australia), Agirre (francia), Gaitze, Superdozer |
| urtarrillak 24 | Tutan come on, Voltaia |
| otsailak 21 | Fuzz, Boogie van |
| martxoak 14 | Penadas por la ley, Las sexpeare |
| martxoak 28 | Ras, Teething, Boody brotherhood |
| apirilak 18 | Subversion x, Suzio 13, Mil demonios |
| apirilak 19 | Warsong |
| apirilak 25 | Fee reega (alemania), Poppy puppy |
| maiatzak 05 | The Paul Collins beat |
| maiatzak 10 | Kike tormenta, Eneritz Furyak |
| maiatzak 20 | Autoramas (brasil) |
| maiatzak 30 | Ofunkillo, Luz de putas, Kultu kultibo |



Azaroan *Cobra* taldeak sekulako boloa eman zuten. (Arg: Unai Huizi).



Australiar *Burn in Hell*-k txunditu egin gintuen. (Arg: J.A. Areta Goñi - JUXE).



Abenduan *Zea Mays* taldea zuzenekoak bukatzen. (Arg: Unai Huizi).



Txiroloren omenaldian *Odio* egurra ematen zaleekin. (Arg: Unai Huizi).



The Paul Collins Beat. (Arg: J.A. Areta Goñi - JUXE).



O'funk'illo zuzenekoak bukatzen, jendea a topeee! (Arg: Unai Huizi).